

---



# SANATORIO *de* USURBIL

---

U S U R B I L *g o* S E N D A T E G I A

---

## LEGE OHARRA

- **Enpresaren datuak**

Informazioaren Gizarteko eta Merkataritza Elektronikoko Zerbitzuen uztailaren 11ko 34/2002 Legearen 10. artikuluan ezarritakoa betez, jakinarazten dizuegu honako hauek direla enpresaren identifikazio datuak:

Izen Soziala: SANATORIO DE USURBIL, S.L.

IFZ / IFK: B20-017802

Helbide Sozial: SAN ESTEBAN AUZOA, 48 – 20170 USURBIL (GIPUZKOA)

Telefono zenb.: 943 36 11 24

Faxa: 943 36 28 98

Helbide elektronikoa: [info@sanatoriodeusurbil.com](mailto:info@sanatoriodeusurbil.com)

Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta 1033 liburukia 159 folioa SS-14351 orria

- **Jabetza intelektual**

Sanatorio de Usurbil, S.L. da sanatoriodeusurbil.com webgunearen jabetza intelektualaren eskubideen, bere iturburu-kodearen, testuen, diseinu grafikoen, irudien, argazkien, animazioen, soinuen, nabigazio egituraren eta datu-baseen titularra, baita edukiena ere, eta jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideei buruzko Espainiako legeriak babesten ditu. Edukiak erreproduzitzeak, guztiz edo zatika argitaratzeak, banatzeak, merkaturatzeak edo eraldatzeak, Legeak babestutako jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideak urratzea dakar, non eta ez den berariaz baimendu.

Sanatorio de Usurbil, S.L. enpresak dagozkion ekintza administratibo, zibil eta penal guztiak erabili ahal izango ditu, baldin eta erabiltzaileak eskubide horiek urratzen baditu edo betetzen ez baditu.

## • Webguneak eskaintzen dituen zerbitzuak

Honako hauek dira Sanatorio de Usurbil, S.L. enpresaren web orriak eskaintzen dituen zerbitzu eta/edo edukiak:

- Aurkezpena
- Enpresa
- Erabiltzailearentzako Informazioa
- Laguntza taldea
- Jarduerak
- Psikiatri kontsultak
- Harremanetarako

## • Cookie-ak

Cookie-ak erabiltzailearen ordenagailuan kokatzen diren datu fitxategi txikiak dira; ezin dituzte disko gogorreko datuak edo beste zerbitzu-emaile batzuek sortutako beste cookie batzuk irakurri, eta erabiltzaileak egindako bisiten inguruko informazioa biltzeko eta berreskuratzeko erabiltzen dira, zerbitzuen eraginkortasun eta pertsonalizazio handiagoa lortzeko eta nabigazioa errazteko, erabilitako hizkuntzari, pasahitzari, eta abarri dagokionez; bai eta beste mota bateko informazioa emateko ere, hala nola, IP helbideak, ikusi dituen eduki zehatzak, data eta ordua eta bertan eman duen denbora.

Sanatorio de Usurbil, S.L. enpresak EZ DU cookie-rik ERABILTZEN [www.sanatoriodeusurbil.com](http://www.sanatoriodeusurbil.com) webgunean

## • Datu pertsonalak babestea

Sanatorio de Usurbil, S.L. enpresak webguneko erabiltzaile gisa eman diren eta/edo posta elektronikoren bidez eman diren datu pertsonalen segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzen ditu, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta hura garatzeko araudia onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak ezartzen dutenaren arabera.

Erabiltzailea jakinaren ganean gelditzen da, eta webgune honetan bildu diren bere datuak, baita etorkizunean emango dituenak ere, Sanatorio de Usurbil, S.L. enpresarenak diren fitxategi automatizatuetan eta/edo ez automatizatuetan sartzeko baimena ematen du, bai eta horiek tratatzeko ere. Fitxategiak Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Erregistro Nagusian inskribatuta daude.

Datu pertsonalen bilketa eta tratamendua Sanatorio de Usurbil, S.L. enpresak onartutako segurtasun neurrien eta pribatutasun politikaren mende egongo dira, uneoro indarrean dagoen araudiaren arabera. Horien helburua, webguneko formularioetan besterik adierazi ezean, Sanatorio de Usurbil, S.L. enpresari emandako informazioa kudeatzea izango da.

Informazio eskakizunean jasotzen diren datu pertsonalak eskatzailea ez den beste pertsona fisikoren batenak badira, horrek klausula honen edukiaren berri eman beharko die, sartu baino lehen, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (DBLO) 5.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Erabiltzaileak une oro kontsultatu, zuzendu, ezeztatu eta aurkatu ahal izango ditu bere datu pertsonalak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzeko araudian zehaztu legez. Horretarako, idazki bat bidali beharko du, NAN edo pasaportearen kopiarekin batera, Sanatorio de Usurbil, S.L. enpresaren helbidera.

## • **Pribatutasun politika**

Pribatutasun adierazpen honen bidez, Sanatorio de Usurbil, S.L. enpresak zuk emandako informazioa erabiltzeko politika azaltzen du:

1.) Sanatorio de Usurbil, S.L. enpresak aurreikusitako helburua lortzeko biltzen du informazio pertsonala.

2.) Ez da datu pertsonalik hirugarrengoz tratatuko, ezta horiei lagako ere, kaltetuak berriazko baimena eman ezean, edo non eta ez diren Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 6.2 eta 11.2 artikuluetan ezarritako kasuak ematen.

3º) Sanatorio de Usurbil, S.L. enpresak kontratu harremanaren ondorioz bildutako datu pertsonalak, fitxategi automatizatu eta/edo ez automatizatuetan bilduta daudenak, kontsultatzeko, zuzentzeko, ezeztatze eta aurkatzeko eskubidea bermatzen dizu uneoro, betiere indarrean den legerian zehaztutako moduan.

4º) Sanatorio de Usurbil, S.L. enpresak bilketaren helburua betetzeko beharrezko denboran gordeko dituen datuak, edo ondoren prozesatzeko beharko duen denboran. Hori pasata, blokeatuta geldituko dira, legearen arabera ezarritako epeetan.

5º) Sanatorio de Usurbil, S.L. enpresak datuak babesteko segurtasun neurriak hartu ditu, legeetan eskatutako mailen arabera, eta eskura dituen baliabide eta neurri tekniko guztiak ezarri ditu zuk emandako datu pertsonalak galtzea, behar ez bezala erabiltzea, aldatzea eta baimenik gabe erabiltzea saihesteko.

## • **Legeria aplikagarria eta jurisdikzioa**

Baldintzok interpretatzearen edo ezartzearen ondorioz, edo webgunea erabiltzearen ondorioz, desadostasunik edo eztabaidarik sortzen bada, Sanatorio de Usurbil, S.L. enpresak eta erabiltzaileak Sanatorio de Usurbil, S.L. enpresa dagoen tokian eskumena duten epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren eraginpean jartzea adosten dute, eta dagokien beste edozer eskumeni uko egiten diote.